



Irakasleaz gain beste pertsona heldu batzuk gela barruan egotea da ikas komunitatearen ezaugarri deigarrienetakoa.

INIGO AZKONA

Ikas komunitatea

Mundua ikastetxera

Ate joka ditugu Ibilaldia eta Euskal Eskola Publikoen jaia, biak ere, hein handi batean, gurasoen ekimenari esker egiten diren irakaskuntzako jaialdiak. Gurasoen parte hartzea da, hain zuzen, ikas komunitateen ardatzetako bat, ez bakarra. Helburua, azken batean, irakaskuntzan gizarte osoa murgiltzea da.

UNAI BREA

DUELA HAMAR URTE hasi ziren EAEko ikastetxe batzuk ikas komunitate proiektua gauzatzeko, baina Gasteizko Hezkuntza Sailak oraintsu agertu du egitasmoa ahalik eta gehien zabaltzeko nahia, Europatik datozen haizeekin bat eginez. Ikas komunitateen arloan aitzindariak estatubatuarrak izan baziren ere, Europar Batasuna izan da —Kanada eta beste zenbait herrialderekin batera— doktrina ofizial bihurtu duena. Ikas komunitatea eratzea, hala ere, ikastetxe bakoitzaren borondatearen araberakoa da. Ez da oso borondate zabaldua momentuz, ez

gurean behintzat, Hezkuntza Sailaren ahaleginak gorabehera. Uneon, 23 zentro dira EAEn ekimena abian jarri dutenak; bi DBHkoak dira eta gainerakoak Lehen Hezkuntzakoak, Maria Luisa Jaussik, Ikas Komunitateen programako arduradunak eman dizkigun datuek diotenez.

Ikas komunitatea zer den aztertzen hasteko, komeni da munduan izan diren aldaketez jabetzea. Orain dela hamarkada batzuetako gizarte industrialak lekua utzi dio gaur egungo informazioaren gizarteari eta horrek bete-betean eragin dio hezkuntzari. Jaussiren esanetan, eskolak

eragina galdu du; lehen berau zen informazio iturri nagusia, ia bakarra. Orain nonahi dugu informazioa. “Baina horrek ez du esan nahi denek eskuratzen dutenik. Batzuek egiten dute eta beste batzuek ez, hor hasten dira desberdintasunak”. Desberdintasun horiek gainditzea da ikas komunitateen gako nagusietakoa.

Europar gutxiak dakite gai honi buruz Ramon Flecha katalanak adina. Desberdintasunak gaintzeari buruz ikertzen duen talde batean ari da Bartzelonako Unibertsitatean, eta Includ-ed proiektua zuzentzen du: “EBn eskolaren inguruan inoiz egin den ikerketarik handiena da”. Ikas komunitatea hitz gutxiarekin definitzen du Flechak: komunitatea sar dadin bere atea irekitzen dituen ikastetxea. “Medikuek *vademecum*-a duten bezala, hezkuntzak badu berea. Baina urte luzez nor bere kabuz aritu da, hezkuntza hobetzeko lanean ahal izan duen moduan jokatzuz, probak eginez. Orain berriz, badakigu zerk hobetzen duen hezkuntza eta zerk ez”. Helburuak adar bi ditu, biak ezinbestean lotuta: ikasleek gehiago ikastea eta eskolan bizikidetzatza hobetzea. Irakasleen indar hutsak ez dira nahikoak, baina. Horregatik zabaldu behar dira eskolak ateak, mundua sar dadin.

Teoria modernoek diote helburuok lortzeko ikastetxeek ezinbestekoa dutela interakzio hori. Hainbat bidetatik garatu daiteke, baina deigarriena, beharbada, irakasleaz gain beste pertsona heldu batzuk gela barruan egotea da. Sarritan gurasoak eurak dira, baina edonork izan liteke. Senideak, ikasle nagusiagoak, auzoan edo herrian lanean ari den jendea. Eragileak esaten zaien horiek, azken batean. Azterketek diote hala egiten den kasuetan asko hobetzen dela ikasketa prozesua.

“EBren esanetan, eskola-porrot gehien sortzen duena banaketa da, alegia, ikasle onak alde batean jartzea eta txarrak beste batean”, azaldu digu Ramon Flechak, eta azpimarratu: “Hala egiten da Espainiako

AEBetan aitzindari

Lehen eta bigarren hezkuntzako 6.000 ikastetxek dute ikas komunitatearen antzeko programaren bat munduan. Ezagunenak AEBetan daude. *Success for all* (Arrakasta guztiontzat) da eskola gehienek dutena, 2.000 inguruk. 1987an sortu zen, errendimendu baxuko eskola gatazkatsuetan lan egiteko. Urtebete lehenago jaio zen *Accelerated Schools* (Azeleratutako eskolak), langile-kooperatiben eremuan oinarrituta. AEBetan, hala ere, administrazioak ez ditu honelako ekimenak sustatzen. Ondo dabilten eskolak ondo dabilta, eta txarto dabilzanak.... AEBetako ikastetxe askotan aspaldi dituzte zinpeko goardiak. Arrakasta, batzuentzat baino ez.

Estatuan”. Ikas komunitatean kontrakoa da: gelako umeak talde txikitara banatzen dira lanerako, beti ere heterogeneoak izan daitezela saiatuz. Kanpotik etorri den boluntario bakoitza talde batez arduratuko da, dinamizatzaile lanak eginez, guztiek parte har dezaten bultzatuz. Hala, denak aberasten dira, gehiago zein gutxiago dakitenek. Helduari ez dagokio irakastea –hori irakaslearen lana da–, baina bera egoteak gatazkak desagerrarazten ditu. Aritmetika hutsa: irakasle bakar baten zat lan eskerga da gelako diziplinari eustea –denboraren %40 horretan ematen duela kalkulatu dute–; heldu batek berriz, erraz kontrolatzen du lauzpabost ikasleko talde txoa. “Gatazkarik sortzeko denborarik ere ez dagoen giro horretan”, Flecharen hitzak era biltzearen, ikasketa azeleratu egiten da. Eta notak hobetu, azken batean. Gorago adierazi bezala, biak, emaitza akademikoaren zein bizikidetzaren hobekuntza, eskutik helduta doaz. Batak bestea dakar.

Gurasoak ahaztuta Espainiako Estatuan

Aditu gehien arabera, gela barruko interakzioak emaitza ikusgarriak lortu ditu ikasketa prozesua hobetzen, eta salbuespenik gabe gainera. Baina ez da bide bakarra. Gurasoen prestakuntzak, esaterako, eragin handia du umeen hezkuntzan. Alegia, gurasoak, eta batez ere amak, ikastaroren bat egiten aritzea edo bestelako heziketa-saioren batean parte hartzea. Mundu osoan zehar ikasketetan arrakasta neurtzeko egiten diren azterketek agerian utzi dute horrek errendimendu akademikoa hobetzen duela. “Espainiako Estatuan, tamalez, ez da hori kontuan hartu. Indar guztiak irakasleen heziketara bideratu dira, gurasoak ahaztuz. Irakasleentzako Berritzeguneak ondo daude, baina gurasoentzako Berritzeguneak behar dira”, dio Flechak. Eta horixe da hain zuzen ikas komunitatea, haren esanetan: gurasoen Berritzegune bat.

Ikas komunitateak Euskal Herrian

EAEn 23 ikastetxe ari dira Ikas Komunitate programa garatzen, eta kopurua ikasturtero handitzen da. Orain dela hamar urte hasi ziren lehenbiziko laurak, ariketa modura, eta haiek ereindako hazia pixkanaka ematen ari da fruitua. Hasiera batean, bizikidetzatza arazoak zituzten eskolentzako irtenbidetzat jotzen zen, gerora ikusi zuten edozein ikastetxerentzat balio zezakeela, eta 2000. urtean hasi zen ekimena zabaltzen. Pixkanaka oraingoz.

Arabari, Bizkaian eta Gipuzkoan ikas komunitateak egindako ibilbidea laburra bada, beste lurraldeetan hutsaren hurrengo da. Nafarroan badago kasu bakan bat, baina datu ofizialik ez. Izan ere, Hezkuntza Sailak ez dauka momentuz ikas komunitatea sustatzeko

asmorik, bertako langile batzuek horretan buru-belarri diharduten arren, agintariak konbentzitu nahian.

Ipar Euskal Herrian, Frantziako Estatu osoan bezala, oso urruneko kontzeptua da ikas komunitatea. Ramon Flechak dioenez, “1960ko hamarkadako gizarte industrialean, frantziar eskola eredu oso ona zen: laikoa, publikoa, berdintasunaren aldekoa... Baina ez dute informazioaren gizartera egokitzen jakin, ez metodologiaren aldetik, ez kultura desberdinen arteko harremanak kudeatzeari dagokionez. Horrek hainbat arazo sortu dizkie, gatazka bortitz batzuk barne. Frantziako Gobernuaren asmoetan ikas komunitateak ez du lekurik, eta gainera zaila dute horrelakorik ezartzea, oso sistema zentralizatua eta burokratikoak dutelako, inongo autonomiarik gabekoa”.

Gehiago ikasteko, demokrazia

Ikas komunitatea eskola demokratikoaren adierazpideetako bat da. Emaitzei lotutako demokrazia dugu baina: ikasketa hobetzea du helburu, eta lortzen ez badu ez du balio. Horretarako erabiltzen den tresna ikaskuntza dialogikoa da, alegia, elkarrizketan oinarritutakoa. Maria Luisa Jaussik nabarmentzen duenez, elkarrizketa horren ezaugarrietako bat berdintasunean oinarrituta egotea da. Hau da, erabakiak argudioen arabera hartzen dira, ez pertsonen estatusaren arabera.

Orain arte esandako guztiaren adibidea dugu Lekeitioko Herri Ikastetxea. 2000. urtean abiarazi zuten ikas komunitatea. Ordura arte, ikas komunitatea ikastetxe gatazkatsuekin lotutako kontzeptua zen. “Guk hemen ez geneukan halako arazorik—dio Xabier Iturbe eskolako zuzendariak—, baina hala ere konturatzen ginen gela guztietan geneuzkala atzeratuta gelditzen diren ikasle batzuk. Ez emaitza akademikoei dago-kienez bakarrik, harremanak egiteko gaitasu-

Aldaketaren beldur

Lekeition argi dute, beste leku askotan ez. Zergatik ez dira ikas komunitateak barra-barra hedatzen, hain emaitza onak badituzte? Ramon Flecharen ustez, horretarako arrazoiak ulertzekoak dira: gizakiok ez gara berez aldaketazaleak. Irakaskuntza alorrean eta Espainiako Estatuan, gainera, aldatu nahi eza irmoagoa da iragan hurbileko aurrekariengatik. “Hainbat erreforma iragarri dira—LOGSE eta abar—, eta irakasleek sinetsi egin dute; baina horien emaitzak uste baino kaxkarragoak izan direla ikusita, uzkuritu egin dira proposamen berrien aurrean”. Bestalde, ohikoa da irakasleek beren esparrua zaindu nahi izatea. Ez da erraza besterik gabe ateak irekitzea kanpotik datorrenari. Pedro Rascon Nafarroako Herrikoa guraso elkarteko presidentek dio irakasle askok oraindik dutela gurasoek hezkuntzan parte hartzearen aurka-jarrera halako bat, “nahiz eta, zorionez, gero eta indar txikiagoa daukan; irakasleak konturatuz doaz gurasoak ezinbesteko ele-

LEKEITIKO HERRI IKASTETXEA



INIGO AZKONA

nean ere bai. Eta ez zen irakaslearen kontua, irakasle askorekin ibili eta gero hala gertatzen zen eta. Zeozer ez genuen ondo egiten, eskola modura”.

Irtenbide bila, ikas komunitate proiektua ezagutu zuten. Gaur egun, eskolatik kanpoko 30 boluntario inguru dauzkate, gela barruko interakzioetan parte hartzen. Horietatik, ia hogeitak bertatik bertara duten institutuko ikasleak dira, erlijio eta etika orduak ume txikien geletan ematen dituztenak. Badabiltza gurasoak eta herriko beste pertsona batzuk ere. ezin denera ailegatu, eta matematika eta hizkuntza eskoletarako baliatzen dituzte boluntarioak, ikasgai garrantzitsuenak direlakoan. Gainera, tertulia dialogikoak antolatzen dituzte, alde aurretik aukeratutako liburu bat hizpide. Emaitzak zoragarritzat jo ditu Iturbek, gai honetaz hitz egin diguten guztien ildo berean.

Ezkerreko argazkian, Batxilergoko ikasle bat haur txikiei laguntzen, Lekeitioko Herri Ikastetxean. Eskumakoan, Zornotzako Andra Mari ikastolako ikasleak gelan. Aurten, 1987an bezala, zornotzarrei egokitu zaie Ibilaldia antolatzea (maiatzaren 25ean egingo da). Etekinak bigarren lerroa jartzeko erabiliko dituzte, gaur egun bakarra dute-eta Lehen Hezkuntzako 1. mailatik aurrera.

mentua direla hezkuntzan”.

Maria Luisa Jaussik uste du gizartea ez dagoela irakaskuntzan inplikaturik, Hego Euskal Herrian behinik behin. “Eskolen dinamika oso bestelakoa izan da, LOGSEk ezartzen zuen curriculum-proiektua irakasleen ardura baizik ez zela, eta horrek asko mugatzen du, eskolan denak duelako curriculumarekin zerikusia. Gurasoek ezin badute ezer esan...”.

Ikas komunitateak gauza dira inertzia horiek hausteko? Ana Eizagirre EHIGE gurasoen elkarteko bozeramaileak begi onez ikusten du EAEko Hezkuntza Sailak sustatutako programa, baina informazio gehiago behar dela uste du. “Pedagogia arloan ematen diren berrikuntzak ez dira ondo ulertzen ez badira azaltzen. Ikasketa dialogikoa oso ondo dago, baina inork ez daki zer den”. Edozelan, Eizagirrek dio ikas komunitateak oso onuragarriak suertatzen ari direla parte hartzen duten gurasoentzat,

eta haien inplikazioa handitzen dutela. Gaiak berebiziko munta dauka EHIGERentzat. Ekainaren 1ean Barakaldon ospatuko dute Euskal Eskola Publikoaren jaia, eta berau iragartzeko zabaldu duten txostenean garrantzi handia eman diote gurasoak eta gizarte osoa irakaskuntzaren arlo guztietan inplikatzeari. Hori diote gurasoen ordezkariak, baina ez dago argi gaur egungo joerak horiek diren, irakaskuntza mundutik sarritan etortzen den mezua baita gero eta axolagabekeria handiagoa dagoela seme-alaben hezkuntza-renganako. Edo, axolagabekeria ez bada, ordutegiak ez digutela askoz gehiagorako betarik ematen. Guraso elkarteak argi dute aita-amak badutela haurren hezkuntzaren gaineko kezka, salbuespenak salbuespen. Parte-hartzea beste kontu bat da.

Ikastolen eskarmentua inplikazio kontuetan

Euskal Herrian ikastolak izan dira, tradizioz, parte hartze horren eredu. Ramon Flechak berak esan digu: “Baliteke hau guztia hain arraro ez iruditzea ikastolak ezagutzen dituenari, horietan beti izan delako senideen inplikazio handia”. Ikastolen Konfederazioko

Ikasleek gehiago ikasi eta eskoletan bizikidetzak hobetzeko helburu bikoitza lortu nahi bada, irakasleen indar hutsak ez dira nahikoak, horregatik ikastetxeko ateak zabaldu behar dira, mundua sar dadin

Mirari Bereziartuak ezinbestekotzat du gurasoen parte-hartzea hezkuntzan, are gehiago estatutik gabeko herrietan, eskola bada herri-gintzaren gakoetako bat. “Ikastolen kasuan, beraz, bi ardatz horiek daude: batetik norberaren seme-alaben hezkuntza, bestetik Euskal Herria”. Arlo akademikoan ere badu garrantzirik gurasoak “bustitzeak”. Euskal curriculumak diseinatzeko egindako ekarpenak ikusi besterik ez dago, Bereziartuaren berbetan.

Esan daiteke, beraz, ikas komunitatearen tankerako ekimenak ez direla guztiz arrotzak ikastoletan, nahiz ez dituzten ezartzen aurreko lerroetan azaldu dugun modu berean. Hala, Seaska da ikasgeletan gurasoen presentzia modu sistematikoan ahalbidetzen duen

bakarra, tutoretza orduetan parte hartuz, ikastetxe guztietan ez bada bai bederen askotan. Horrek guztiak beste onura bat dakar gainera: gurasoak inplikaturik ikusteak mende egiten dio haurren garapenari. Zorioneko Pisa azterketan beti onenetakoa izaten den Finlandian, esaterako, gurasoak bete-betean daude ikastetxeko eguneroko jardunean murgilduta. Nota ona eman beharko diegu, eta geure buruak irailerako prestatu. ■

KEMEN LERTXUNDI
Galdutako zubixak

KARELEAN
56. gelatik

MORAU TA AGOTAK
Kalamndadiak

GAINSBURG
GAINBEGIRATUZ

TIGER! TIGER!
The Kind of Goodnight

LOS REYES DEL K.O.
Live in Yorckschloßchen, Berlin

JOSERRA SENPERENA
Dardaren interpretazioa

MARTA SANCHEZ TRIO
Lunas, Soles & Elefantes

WWW.HOTSAK.COM

errabal

gaztelepeko HOTSAK